

DEIALDIA, HONDAKIN TEKNIKARIA IZATEKO LANPOSTUA BETETZEKO

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan hondakin teknikaria izateko lanpostu bat, lan araubidean, oposizio-lehiaketa bidez betetzea du xede deialdi honek.

Lan poltsa sortuko da hautapen prozesu hau gaintu duten izangaiekin, puntuazio ordenari zorrotz jarraituz. Indarrean izanen da 5 urtez edo beste deialdi bat egin bitartean. Hurrengo deialdia bost urtetik beherako epean egiten bada, zerrenda indarrean egonen da bigarren, Lan poltsa egiteko kontuan hartuko da apirilaren 10eko 13/2015 Foru Legearen 4. artikulua bakarrez ezarritakoa.

1.2. Hautaketa probak 7. oinarrian ezarri dira eta lehiaketaldia baldintza hauen 7.1 oinarrian ezarritakoaren arabera baloratuko da.

1.3. Prozesu honen ondorioz egiten den kontratua lan-kontratudun finkoa izanen da, Gizarte Segurantzari kidetuko da eta bertan alta emanen zaio.

Bi hilabeteko proba aldia izanen da, irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

1.4. Lanaldia administrazio dei egileak ezartzen duena izanen da, betiere zerbitzuaren beharren arabera. Hala ere, noiznahi aldatzen ahalko da.

1.5. Lanpostuak B mailari dagozkion oinarritzko ordainsariak jasoko ditu, Ordainsarien Behin-behineko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, baita onesten diren eta/edo deialdia egiten duen administrazio kontratugilearen plantilla organikoan ezarrita dauden osagarriak ere.

1.6. Bete beharreko eginkizunak:

1. Ingurumenaren arloko sentsibilizazio kanpainak egitea: Prebentzioa hondakinen sorreran, birziklapenerako bereiztea, autokonpostajea, etab.
2. Nafarroako Hondakin Partzuergoaren Batzorde Teknikoan parte hartzea eta Zuzendaritza Batzordea kudeatzailetzarekin eta lehendakartzarekin koordinatzea.
3. Hiriko bilguneen kalitateari buruzko kudeaketa-adierazleei jarraipena egitea: Bilketa maiztasunei, edukiontzi bidezko biltzearen eta edukiontzien erabileraren mailei, ur kontsumoei, mantentze lanei eta kontserbazio egoerari eta abarri buruzko azterketa.
4. Arbizuko zabortegeko instalazioak ikuskatzea.
5. Garbiguneak, larrialdiko etxolak eta ekarpen eremuak ikuskatzea.
6. Hiri Hondakinen Zerbitzuko erabiltzaileen erreklamazioen kudeaketa koordinatzea, baita gainerako erabiltzaileen ere, hala nola ostalaritza eta merkataritzakoenak.
7. Zabortegean sartzen diren hondakinak ikuskatzea eta bertara bota daitezkeen hondakinen inguruko zalantzei erantzuna ematea.
8. Ingurumen arloko tailerrak: laguntza teknikoak, gainbegiraketa, tresnen mantentze lanak egitea, etab.

9. Kudeaketa eta kalitateari buruzko sistemaren dokumentazioa.
10. Hierarkiako nagusien aginduak betetzea eta Hondakin Zerbitzuko lantaldea koordinatzea.
11. Indarreko Ingurumen Baimen Integratua betetzen dela gainbegiratzea. Ingurumen Baimen Integratuan, PRTRn eta Hondakinen Zerbitzuko urteko memorian aurreikusitako txostenak egitea.
12. Erabiltzaileek Hiri Hondakin Solidoen gaineko Ordenantza betetzen dutela zaintzea eta Mankomunitateko organo eskudunei egindako arau hausteen berri ematea.
13. Erabiltzaileei egindako gogobetetze inkestak koordinatzea.
14. Aipatutakoez gain, agintzen zaizkion bestelako erantzukizunak ere hartu beharko ditu bere gain, betiere bere maila profesionalarekin bat datozenak.

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

a) Nazionalitate espainiarra izatea.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaingaitua ez izatea.

c) Huetako ikasketa tituluren bat edukitzea, edo bakoitzari dagokion gradu titulua, edo balio berekotzat jotzen den beste titulu bat, edo eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea: Unibertsitateko Diplomadun edo Gradudun titulua, Ingeniaritza Teknikokoa, Arkitektura Teknikokoa edo baliokidea. Aipatutako tituluen baliokideak diren ikasketak eginak dituztela alegatzen duten izangaiek baliokidetasun hori onartzen duen lege edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo, bestela, baliokidetasunari buruz Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak luzatutako ziurtagiria aurkeztu.

Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Funtzio publikoan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ere.

f) B motako gidabaimena edukitzea.

g) Euskara maila. Euskara maila modu hauetan kreditatu daiteke: Hizkuntz Eskola Ofizialaren Euskara Titulua (C1), EGA edo baliokide den beste titulu bat izatea. Titulurik eduki ezean izangaiek proba bat gaingaitu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko, ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuaren 4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiko zazpigarren oinarrian ezarritako epean eta moduan beharko dituzte frogatu probak gaingaitu eta lanpostua eskuratzeko duten izangaiek. Eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean bete egin beharko dira aipatu baldintzak, baita hautapen prozedurak dirauen bitartean eta izendapena iritsi arte ere.

3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Deialdi honetan parte hartu ahal izatea eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrean, 30 egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, egun horretako 14:30 arte. Eskabidea I. eranskineko ereduari lotuko zaio, eta ondokoekin batera aurkeztuko da:

- a) NANaren edo horren baliokidea den identifikazio agiriaren fotokopia.
- b) Eskatutako tituluen kopia kautotua edo fotokopia, konpultsatzeko jatorrizkoarekin batera aurkeztuko dena.
- c) Lehiaketaren baremoaren irizpideei jarraikiz, baloratuko diren merezimenduen gaineko agiriak. Epaimahaiak ez ditu aintzat hartuko jatorrizko agiriarekin edo fotokopia konpultsatuekin egiaztaturik ez dauden merezimenduak.
- d) B motako gidabaimenaren kopia kautotua edo fotokopia, konpultsatzeko jatorrizkoarekin batera aurkeztuko dena.
- e) Hizkuntza maila egiaztatzeko eskatutako tituluaren kopia kautotua edo fotokopia, konpultsatzeko jatorrizkoarekin batera aurkeztuko dena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua babesean, eskabideak aurkezten badira Sakanako Mankomunitateko Erregistro Orokorraz bestelako beste edozein erregistrotan, eskatzaileek eskabide-agiriaren eta sartzeko baldintzak betetzen direla frogatzen duten agirien kopia igorri beharko dute kudeatzailea@sakana-mank.eus helbide elektronikora, eskabideak aurkezteko epean, kasuan kasuko erregistroaren zigilua eta erregistroko sarrera-data dituztela. Nahitaezkoa eta saihestezina izanen da aipatu agiriak posta elektronikoz igortzea, hautapen-prozeduraren tramitazioak aurrera egin dezan, baina ez du erabateko baliorik izanen Sakanako Mankomunitatean jatorrizko ereduaren araberako eskabidea sartzen ez den bitartean.

Igorpen prozedura hori bete ezean, izangaia hautapen-prozeduratik kanporatua izanen da, baldin eta erregistratutako eskabidea izangai onartu eta baztertuen hasierako zerrendaren argitalpenaren ondotik iristen bada.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

4. oinarria. Behin-behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, jendaurrean paratuko da izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, Sakanako Mankomunitateko iragarki oholean eta webgunean (<http://www.sakana-mank.eus>).

Iragarkia Sakanako Mankomunitateko iragarki-taulan eta web-orrian (<http://www.sakana-mank.eus>) argitaratzen denetik aurrera, izangaiek hamar eguneko epea izango dute erreklamazioak aurkeztu edo instantzian egindako akatsak zuzentzeko.

Inor baztertzen ez bada, zuzenean argitaratuko da behin betiko zerrenda, eta zerrenda horretan bertan jarriko dira hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia, eta, kasua bada, euskara probak egitekoak ere bai.

5. oinarria. Behin betiko zerrendak.

Aurreko oinarrian aipatu epea bukatu eta aurkezten diren alegazioak ebatzi ondoren, lehendakariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko; hura Sakanako Mankomunitateko iragarki oholean eta webgunean(<http://www.sakana-mank.eus>) jarriko da jendaurrean, hautapen proba egiteko eguna eta tokia adierazita.

Halaber, kasua bada, euskara probak egiteko eguna eta tokia iragarriko dira.

6. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Epaimahai kalifikatzaileak kide hauek osatuko dute:

-Lehendakaria: David Oroz Alonso, Sakanako Mankomunitateko lehendakaria.

-Ordezkoa: Mikel Azkargorta Boal, Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea.

-Lehen bokala: Raul Salanueva Murguialday, Nafarroako Gobernuko Hondakin Atalekoa.

Ordezkoa: Mikel Bezunartea Pasquel, Nafarroako Gobernuko Hondakin Atalekoa.

- Bigarren bokala: Victor Mur Bilesa, Nilsako Hondakinen Departamentuko arduraduna

-Ordezkoa: Txomin Elgorriaga Astandoa, Nilsako Hondakinen Departamentuko teknikaria.

-Hirugarren bokala: Martín Zelaia García, Sustrai Fundazioko lehendakaria, sindikatuek izendatutako kidea.

-Ordezkoa: Jorge Iriarte Ollo, Sustrai Fundazioko idazkaria, sindikatuek izendatutako kidea.

-Laugarren bokala: Itziar Iribarren Recarte, Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea.

-Ordezkoa: Nerea Malkorra Araolaza, Sakanako Mankomunitateko kontu-hartzailea.

- Sakanako Mankomunitateko idazkaria: Miren Ortiz Olabe. Hitza izanen du, baina ez boto eskubidea.

-Ordezkoa: Hark izendatzen duena.

6.2. Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoak bildurik izan beharko da. Halaber, epaimahairen eraketak balio izateko, epaimahaiko buruak edo idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala badagokio, haiek ordezkatzeko dituztenak. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egiten ahalko die proba guztietarako edo batzuetarako.

6.3. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

6.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta epaimahaiari jakinarazi, baldin Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusitako dauden arrazoiak gertatzen badira. Izangaiak, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzea, inguruabar

horietako bat gertatzen denean. Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean agertuko da hori, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

6.5. Hautaprobak hasi aurretik eratu beharko du epaimahaia.

7. oinarria. Probak egitea.

Aurreikusten da hautapen probak 2018ko iraileko lehendabiziko astean egitea. Oposizioa hasi aurretik euskara proba egingo da. Bakarrik deialdi honetako 2.1.C) oinarrian eskatutako baldintza egiaztatu ez duten izangaiek egingo dute, baldin eta egiteko interesa badute. Proba horretan idatzizko ariketa bat eta ahozko bat egingen dira, eta horiekin zehaztuko da izangaia gai edo ez-gai den, C1, EGA hizkuntza mailari edo baliokidea den tituluari dagokionez. Euskaraz jakitea betebeharra denez gero, proba horren kalifikazioa ez gai bada, izangai horrek ez du aurrera egingen hautaketa prozesuan. Proba Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuko langileek egingo dute. Proba amaitutakoan, oposizioaldia hasiko da.

7.1. Oposizioaldia: gehienez 70 puntu

a) Lehenengo proba teorikoa: gehienez ere 30 puntu.

Erantzun laburreko eta/edo test motako galdera batzuei erantzun beharko zaie idatziz, II. eranskinetako gaiei buruz.

Proba honek ordu eta erdi iraunen du gehienez eta 30 puntu izanen ditu gehienez ere. Erantzun okerrak zigortuko dira, epaimahaia ariketa hasi aurretik zehaztuko duen maneran. Bazterturik geldituko dira gutxienez ere 15 puntu erdiesten ez dituzten izangaia.

b) Bigarren proba teorikoa: gehienez 30 puntu

Bi kasu teoriko praktiko ebatzi beharko dira, II. eranskinetako gaien eta lanpostuari dagozkion eginkizunen inguruan. 30 puntu izanen ditu gehienez ere. Kasu bakoitzarengatik gehienez ere 15 puntu emanen dira eta baztertuta geldituko dira bi txostenen puntuazioa batuta 15 puntu lortzen ez dituzten izangaia.

Ariketa teorikoa eta praktikoa egun berean egingen dira, jarraian. Bigarren ariketa praktikoa bakarrik hartuko da kontuan lehen proba teorikoa gainditu bada.

Probak plika bidezko gutun-azal itxien bidez egingen dira, eta gehienez ere 3 eguneko epean argitara emanen dira kalifikazioen zerrenda eta esleitutako plika zenbakia, eta adieraziko da plikak noiz eta non irekiko diren (eguna, ordua eta tokia), hori egin baino 48 ordu lehenago, gutxienez. Irekitze hori jendaurrean egingen da.

c) Proba psikoteknikoa: gehienez 10 puntu.

Sakanako Mankomunitateko iragarki oholean eta webgunean (<http://www.sakana-mank.eus>) jarriko da hirugarren proba proba egiteko eguna, ordua eta tokia. Proba psikoteknikoa izanen da, izangaiak lanpostuaren profilaren beharretara zein mailatan egokitzen diren erabakitzeko Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak egingo ditu proba horiek. Balorazioak lotesleak izango dira epaimahaiarentzat.

Hirugarren proba egitera dei egingen zaie 10 izangairi, betiere aurreko bi probak gainditzen dituztenen artetik. Horretarako, lehenbiziko eta bigarren proban lortutako kalifikazioak baturik, guztirako puntuazio onena lortzen dutenak aukeratu dira. Bi izangaik edo gehiagok puntuazio bera badute, guztiak onartuko dira. Gainerako izangaiak deialditik baztertuta geldituko dira.

7.2. Lehiaketaldia: gehienez 30 puntu

Oposizioaldiaren lehen fasea eta, hala badagokio, euskara proba gainditu duten izangaiei soilik balioztatuko zaizkie meritua, betiere prozesuan onartuak izateko aurkeztu duten eskabideari atxikitako dokumentazioaren arabera. Ez da balioztatuko epez kanpo aurkeztutako meriturik.

Epaimahaiak izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu, ondotik datorren baremoaren arabera baloratu ere.

a) Lanbide merezimenduak: gehienez 15 puntu.

Hondakin teknikari lanetan aritu izana (A edo B maila):

- Administrazio publiko batean: 3 puntu, urte bakoitzeko.
- Enpresa publiko edo entitate pribatu batean: 1.5 puntu urte bakoitzeko.

Fase honetan, esperientzia egiaztatzeko, frogagiriak aurkeztuko dira: enpresa ziurtagiriak, lan kontratuak, edo bestela, izangaiak nomina bat teknikari maila duela adierazten duena, eta lan bizitzaren ziurtagiria, antzinatasuna, lanbide maila eta lan egindako denbora.

Frogaturiko esperientzia aldiak ez badu urteko osorik hartzen, dagokion proportzioa aterako da.

B) Prestakuntza ikastaroak: gehienez 15 puntu

Deialdiaren xedeko lanpostuarekin lotutako prestakuntza ikastaroak baloratuko dira, gehienez ere 15 puntuz.

1) Unibertsitate tituluak: Deialdian onartua izateko, eskatzen den gutxieneko titulazioa baino goragoko titulazioa aurkezten bada (adb. lizentziatura aurkeztea diplomatura eskatzen bada), ez da meritutzat hartuko. Eskaintako lanpostuarekin erlazionatutako unibertsitate tituluak eta deialdi honetan parte hartzeko baldintzatzen eskatutakoa ez, baizik eta bestelako titulazioak:

-Goi mailako unibertsitate titulazioak: 2 puntu.

-Maila ertaineko unibertsitate titulazioak: 1 puntu.

-Masterrak, graduondoak eta ingurumen arloko unibertsitate espezializazioa, hondakinen eta/edo giza baliabideen kudeaketarekin harremana dutenak (antolakuntza). 3 puntu titulu bakoitzeko.

Atal honetako gehieneko puntuazioa 5 puntu dira.

2) ISO 9001, ISO 14001 eta OSHAS 18001 araukin harremana duten prestakuntza ikastaroak, 0,15 puntuz baloratuko dira 10 prestakuntza ordu bakoitzeko. Meritutzat hartzeko, ikastaroa gutxienez 10 ordukoa izango da. Gehienez ere 5 puntu.

3) Lanpostuan egoki jardutearekin zerikusia duten prestakuntza ikastaroak, 0,15 puntuz 10 prestakuntza ordu bakoitzeko. Meritutzat hartzeko, ikastaroa gutxienez 10 ordukoa izango da. Gehienez ere 5 puntu.

7.3. Dena den, proba hau izangai bakar batek ere gaindituko ez balu edota izangai hautatuak deia egin duen Administrazioak kontratatzea nahiko ez balu, Administrazio horrek hautespen prozesuan azkeneko puntuazioaren hurrenkerari hertsiki jarraituz probetako bat gainditu duten izangaiak kontratatu ahalko ditu.

7.4. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta oposiziotik baztertuta geldituko dira agertzen ez diren izangaiak.

8. oinarria:Epaimahaiaren proposamena.

8.1. Azken proba kalifikatu eta gero, epaimahaiak Administrazio eskatzaileari puntuazio altuena duen hautagaiaren aldeko proposamena egingo dio.

Berdinketa izanez gero, lehentasuna izanen du bigarren ariketan puntuaziorik handiena eskuratzen duenak, eta hala ere berdinketa hausten ez bada, zozketa egingen da izangaien artean.

8.2. Proposamena loteslea izanen da administrazio eskatzailearentzat.

8.3. Ariketak bukaturretik, emaitzak jendaurrean jarriko dira Sakanako Mankomunitatearen iragarki oholean, probak egin diren tokian eta web orrian (<http://www.sakana-mank.eus>).

8.4. Hautatzen den izangaiak lanpostuan sartu beharko du 7 eguneko epean gehienez ere, Administrazio kontratugilearen proposamena onartzen duen egunetik hasita. Izangaia epe horretan lanean hasiko ez balitz, nahiko justifikatutako kasuetan izan ezik edota plaza berriz hutsik geratuz gero, organo eskudunek hautespen prozesuan lortutako puntuazio onenaren hurrenkerari jarraikiz izangaiak kontratatu ahalko ditu, eskainitako kontratazioarekin ados daudela adierazten dutenak.

8. oinarria. Errekurtsoak.

9.1. Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bat aurkezten ahalko da:

a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetez, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

d) Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Lakuntza, 2018ko maiatzaren 09an, David Oroz Alonso

I. eranskina: Eskabide eredu

Izena:....., adinez nagusia, NAN zenbakia:....., jaioteguna:....., bizilekua:....., kalea:....., telefono finkoa:....., telefono mugikorra:....., e-maila:....., zugana jo eta honako hau aditzera ematen dut: **AZALTZEN DUT:**

- Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan hondakin teknikaria izateko lanpostu bat betetzeko deialdia onartua izatea eskatzen dudala (deialdia x NAO n argitaratu zen, 2018ko.....(e)an.

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

–Ez naizela diziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia izan, ez eta diziplinako kaleratzearen bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen ditudala eta hura egiaztatzeko dokumentazio guztia atxiki dudala.

Euskararen C1 mailako ezagutza frogatzeari dagokionez (markatu bidezkoa dena):

- Euskararen C1 mailako ezagutza izatearen ziurtagiriaren kopia kautotua gehitzen diodala eskabide honi.
- Euskararen C1 mailako ezagutza frogatzeko proba egitea eskatzen dudala.
- Desgaitasuna dudala eta, beraz, azaltzen den egokitzapena eskatzen dudala, adierazten diren arrazoiengatik. (Beste orri batean azaldu behar dira eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak).
- Minusbaliatua naizela frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.

B1 motako gidabaimena dudala eta ibilgailu propioa dudala.

Horrenbestez, iragarritako deialdian onartu izatea **ESKATZEN DUT.**

.....2018ko.....(a)ren.....(e)an.

II. ERANSKINA Gaiak

1. Sakanako Mankomunitatearen Estatutuak. Hondakinak bildu eta kudeatzeko sistemak Sakanan.
- 2.- Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobatu edo desegiteko tasak eta zerbitzu horrek eskaintzen dituen bestelako jarduerak arautzen dituen ordenantza fiskala. Ordenantza 71 zenbakidun NAO on argitaratu zen, 2017ko apirilaren 11n.
- 3.- Arbizuko zabortearen industrietako hondakinak botatzeko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, 2017ko ekitaldirako. Ordenantza 65 zenbakidun NAO on argitaratu zen, 2017ko apirilaren 3an.
- 4.- Nafarroako toki entitateen funtzionamenduaren araubidea. Udala, mankomunitateak eta beste toki entitate batzuk. Erakunde autonomoak. Administrazio publikoetako langileak.
- 5.- Administrazio publikoa. Egintza administratiboak. Administrazio prozedura. Administrazio errekursoak.
- 6.- Kudeaketa sistema, UNE-ISO 9001 arauari jarraikiz. Ingurumena kudeatzeko sistemak, UNE-ISO 14.001 eta OHSAS arauari jarraikiz, eta EFQM eredua.
- 7.- 304E/2015 EBAZPENA, apirilaren 24koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana.
- 7.- 81E/2017 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana.
- 7.- 176E/2017 EBAZPENA, ekainaren 19koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana.
- 7.- 64E/2018 EBAZPENA, martxoaren 21ekoa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana.
- 11.- 1481/2011 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Hondakinak hondakindegietan bilduz ezabatzea arautzen duena.
- 12.- 2000/532/CE Batzordearen Erabakia, 2000ko maiatzaren 3koa, Europako Hondakin Zerrenda onartzen duena.
- 13.- 23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan eraikuntza eta eraispeneko hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena.

14.- 180/2015 Errege Dekretua, martxoaren 13koa, Estatuko lurraldearen barrenean hondakinak tokiz aldatzea arautzen duena.

15.- Hondakinei buruzko 2008/98/CE Esparru Zuzentaraua eta 22/2011 Legea, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

16.- 4/2005 Foru Legea, martxoaren 22koa, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa eta lege horren garapenerako Araudia onesten duen abenduaren 28ko 93/2006 Foru Legea.

17.- PEMAR 2016-2022 Hondakinak kudeatzeko Estatuko Esparru Plana, Nafarroako Hondakin Plana (2017-2027) eta Hondakinen Foru Legearen proiektua.

2.- Nafarroako Hondakinen Tratamendurako Partzuergoa.